

Bergarako Udalaren eta Jardun euskara elkartearen arteko hitzarmena, *merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoa* diruz laguntzekoa

Bergaran, bi mila eta hogeita bosteko apirilaren bian

BILDU DIRA

Gorka Artola Alberdi, Bergarako Udaleko alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Eta bestetik, Miren Etxeberria Jauregi andrea, Jardun kultur elkartearen lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken honek alkatearen aurrean zinpean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzeko duten entitatea ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa

ADIERAZI DUTE

- 1.- Jardunek eta Bergarako Udalak, elkarlanean, eta Bergarako Udalak diruz lagunduta, merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoa eramango dute aurrera, 2025. urtean.

Elkarlan hori bideratzeko eskumena ematen die 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udalei bere 7. artikuluko 5. puntuan:

Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaingandiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin.

- 2.- Proiektu hori garatzea interesgarria delakoan, Udalak, Alkateak 2025eko apirilaren 2an emandako Dekretu baten bitartez, diru-laguntza eman eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea erabaki duela.

Hala, beraz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Udalak eta Jardunek aurrera eramango dituzten lanen banaketa zehaztuta dago hitzarmen honen eranskinean datorren txostenean, eta bakoitzari dagozkionak burutzeko konpromisoa hartzen dute.

BIGARRENA: Bergarako Udalak **8000 euroko** dirulaguntza emango dio Jardun euskara elkarteari txostenean zehaztutako lanak aurrera eramateko.

Diru-laguntza hori 3 zatitan emango da, era honetan: hitzarmena sinatzean %30; 2025eko uztaillean %30 eta 2025eko abenduan beste %40a. Azkeneko zatia ordaintzeko, 6. Klausulan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko du 2025eko azaroaren 30a baino lehen.


HIRUGARRENA: Horrez gain, Jardun euskara elkarteak honako konpromisoak hartzen ditu:

- 1.- Ateratako eskuorri, kartel, sare sozialetan edo bestelako publizitate euskarrietan, Bergarako Udalak diruz lagundu duela adierazi beharko da.
- 2.- Ogasunekiko betebeharrak egunean egotea. Halaber, Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharrak fiskaletan, zergatan eta zergaz gain tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du elkarrekin Bergarako Udalarekin egunean dagoela.
- 3.- Jasotako fondoak zertan erabili diren egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, gutxienez sei urtez, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezzen.
- 4.- Jasotako fondoak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.
- 5.- Diruz lagundutako jarduerak garatzeko behar beste baimen lortzea, eta baimenon xedapenak betetzea.
- 6.- Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, udalaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.
- 7.- Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea.
- 8.- Zurtatzea baldintza guztiak betetzen direla, hala nola, diru-laguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduerak eta helburua betetzen direla.
- 9.- Udalak egin litzakeen ikuskapenak erraztea.
- 10.- Bergarako Udala jakinaraztea Udalak diruz laguntzen duen jarduerarako beste diru-laguntzarik lortuz gero. Beste diru-laguntzaren bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.

Halaber jakitun da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, diru-laguntza hau kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunei:
 - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra (GSDO):
 - GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotea



Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, diru-laguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

LAUGARRENA: Hitzarmena sinatzen duten bi aldeek bere horretan eusten diete beren ahalmenei eta hartzen dituzten erantzukizunak hitzarmenean jasotako obligazio eta konpromiso horietatik, ez besterik.

Hitzarmen hau indarrean egongo da elkarteak 5. klausulan jasotako justifikazio jarduera guztiak burutu eta udalak azken ordainketa egin arte.

BOSGARRENA: Dirulaguntzaren justifikazioa

Jardun elkarteak 2025eko azaroaren 30a baino lehen honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Dirulaguntza ordaintzeko eskabidea, udaleko eskabide orokorra erabilia.
- Aurreko urteko memoria.
- Emaizta ekonomikoaren memoria, hau da, zerrenda sailkatu bat, jardueraren gastuak eta inbertsioak jaso eta bertan zehaztu beharko dira hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, horrelakorik balego, ordainketa-data; eta bertan, era berean, zehaztu egin beharko dira diruz lagundu den jarduera hori finantzatzeko izan dituzten beste diru-sarrera edo diru-laguntzak, adierazita bakoitza zenbatekoa izan den eta nondik etorri den. Memoria erreala dela adierazten duen zinpeko aitorpena gehituko zaio, elkarteko ordezkariak sinatuta.
- Faktura, agiri edo errezipoen kopiak.
- Jasotako beste diru-laguntzen agiriak edo, diru-laguntzarik jaso ez bada, zinpeko aitorpena.

Halaber, Udalak ofizios egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Azkenik, baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
 - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantza:
 - Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

Justifikatutako gastuak aurrekontuan aurreikusitakoak baino txikiagoak badira, diru-laguntza proportzio berdinean gutxituko da. Jardun elkarteak diferentzia itzuli egin beharko dio Udalari Udalak zehaztutako epean.

Egindako gastuak berriz, aurkeztutako aurrekontuan jasotakoak baino handiagoak badira, Udalak onartutakoa baino diru-laguntza gehiago ez du emango.

SEIGARRENA: Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Udalak emango duen dirulaguntzaz gain helburu bera duen beste edozein dirulaguntza ere jaso daiteke.

Hala eta guztiz ere, dirulaguntzak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan diruz laguntzen den jardueraren kostua baino.

ZAZPIGARRENA: Dirulaguntzaren aldaketa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

ZORTZIGARRENA: Dirulaguntzaren berrikuspena.

Dirulaguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Dirulaguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Dirulaguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, dirulaguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

BEDERATZIGARRENA: Bermea.

Ez da beharrezkoa ikusten berme bat eskatzea ez baita arriskurik aurreikusten hitzarmen honetan jasotako betebeharrak ez betetzeko.

HAMARGARRENA: Izaera pertsonaleko datuen babesa.

Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen dutenek adierazten dute bertan ezarritako betekizun guztiak bete egiten dituztela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak goitik behera onartzen dituztela.

Sinatzen dutenek deklaritzen dute hitzarmen hau izenpetzeko eman duten informazioa egiazkoa dela, ez dutela isilean ezer gorde edo aldatu.

Aldi berean, izenpetzen dutenek adierazten dute Bergarako Udalari eman dizkioten Datu Pertsonalak bere onespenez eman dizkiotela eta datu horiei tratamendua emateko baietza ematen dutela

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

HAMAIKAGARRENA: Aurreikusita ez dagoena.

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa eta lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, aplikatuko dira. Baita Bergarako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza orokorra eta Bergarako Udalaren udal aurrekontuaren arauak eta gai honen inguruan indarrean dagoen gainontzeko legedia ere.


HAMABIGARRENA: Auzigaiak.

Hitzarmen honetatik auzigaiak sortzen badira, hitzarmenak berak izaera juridiko-administratiboa duenez, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren menpe geratuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Miren Etxeberria Jauregi
Jardun euskara elkarteko presidentea

Gorka Artola Alberdi
Bergarako Udaleko alkatea



ERANSKINA

Merkataritzan eta ostalaritzan euskara sustatzeko egitasmoa

Egitasmo honen helburua izango da euskararen erabilera areagotzea, ahoz zein idatziz, merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetan.

1. Egitasmoaren helburu nagusiak

1. Euskararen erabilera sustatzea merkataritzan eta ostalaritzan, ahoz zein idatziz, bai saltzaileen eta bai bezeroen artean.
2. Merkatariek eta tabernariak euskaraz komunikatzeko duten gaitasuna hobetzea.
3. Herritarrek euskaraz hitz egin dezaketen guneak identifikatzea.
4. Bedelkarrek egitasmoarekin bat egitea.

2. Egitasmoaren helburu zehatzak

1. Euskararen erabilera sustatzea merkataritzan eta ostalaritzan, ahoz zein idatziz, bai saltzaileen eta bai bezeroen artean:

a) Hizkuntza paisaia euskaratzea:

- Eguneroko jardunean erabiltzen diren kartelak, kartak, idatziak... euskaraz edo ele bietan jartzea, azken kasu honetan euskarari lehentasuna emanez.
- Errotuluak euskaraz jartzea.
- Irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzea, azken kasu honetan euskarari lehentasuna emanez.
- Webguneak euskaraz edo ele bietan jartzea, azken kasu honetan euskarari lehentasuna emanez.
- Publizitatea euskaraz edo ele bietan egitea, azken kasu honetan euskarari lehentasuna emanez.
- Sare sozialak euskaraz edo ele bietan erabiltzea, azken kasu honetan euskarari lehentasuna emanez.
- Barne erabilerako dokumentazioa (kontratu, nomina...) euskaraz edo ele bietan jartzea, azken kasu honetan euskarari lehentasuna emanez.

Hizkuntza-paisaiaren elementu batzuk euskaratzeko diru-laguntzak, ereduak eta hiztegiak eta itzulpen- eta zuzenketa-zerbitzua eskainiko zaizkie merkatariei eta ostalariei.

b) Bezeroak sentsibilizatzea euskara erabili dezaten.

c) Merkatariak eta ostalariak Euskaraldian parte hartzera animatzea ahozko erabilera sustatzeko.



2. Merkatariek eta tabernariak euskaraz komunikatzeko duten gaitasuna hobetzea.
 - Euskara-ikastaroak, ulersaioak, euskara erabiltzeko baliabideak... eskaintzea merkatariei eta tabernariei, udal euskaltegiarekin batera.
3. Herritarrek euskaraz hitz egin dezaketenean guneak identifikatzea:
 - Euskaraz barra-barra ikurra eskaintzea ikurra lortzeko baldintzak betetzen dituzten establezimenduei eta jarraipena egitea.
4. Bedelkarrek egitasmoarekin bat egitea, bere bazkideen artean sustatu dezan egitasmoa. Udalak bideratuko du Bedelkarrekiko harremana.

3. Faseak eta kronograma

2025eko martxora arte: Egitasmoa diseinatu

- Egitasmoa aurkeztu Bedelkar elkarteari, ekarpenak jaso eta behin betiko egitasmoa definitu.
- Establezimenduen gaineko informazioa: Udalak dituen establezimenduen zerrendak osatuko dituzte Jardunen eta Udalaren artean, telefonoak eta helbide elektronikoak aurkituz interneten.
- Diru-laguntzak onartu.
- Komunikazio kanpaina diseinatu eta bisitetarako materiala sortu.
- UEMArekin elkarlana bideratu. Udalak bideratuko du.

2025eko martxoa: Egitasmoa ezagutzera eman

- Komunikazio kanpaina abian jarri:
 - Herriko establezimendu guztietara iristeko bideak erabili: gutunak, publizitatea, sare sozialak...
 - Bedelkar: zabalkundea egin bazkideen artean.
- Garapen agentzia eman diru-laguntzen berri. Udalak bideratuko du.

2025eko martxotik abendura arte: Bisitak, egitasmoan parte hartu nahi duten establezimenduek konpromiso-orria sinatzea, diagnostika eta jarraipena

- Establezimenduak bisitatu banaka, aurrez hitzorduak adostuta, eta Bedelkarreko bazkideetatik hasita:
 - Egitasmoaren berri eman
 - Konpromisoa orriak sinatu
 - Establezimenduen diagnostikoa egin
 - Establezimenduen eskaerak erantzun
 - Jarraipena egin
 - Euskaraz barra-barra ikurrak banatu dagokien establezimenduei



- Euskaraldian parte hartzera animatu merkatariak eta ostalariak.
- Euskaraldiarekin lotuta bezeroak sentsibilizatzeko kanpaina martxan jarri.
- Konpromiso-orria sinatzen duten establezimenduen berri emango da sare sozialen bidez aldiro, batetik, egitasmoa ezagutzera ematen jarraitzeko eta, bestetik, bezeroek jakin dezaten nortzuk ari diren egitasmoan parte hartzen.

2025eko abendua: Ebaluazioa

- Egitasmoaren ebaluazioa egin. Txostenean, besteak beste, ondorengo adierazleak jasoko dira:
 - Bisitatutako establezimendu-kopurua
 - Sinatutako konpromiso-orrien kopurua
 - Jasotako eskaera-kopurua
 - Eskainitako euskara-ikastaroak eta ikasle-kopurua
 - Euskaraldian parte hartu duen establezimendu-kopurua
 - Euskaraz barra-barra: Banatutako ikur kopurua
- Hobekuntzak proposatu

4. Lanen banaketa

Establezimenduetara egingo den lehenengo bisitan Jarduneko eta Udaleko ordezkariak joango dira.

Behin lehenengo bisita eginda dagoenean, Jarduneko dinamizatzailerak izango da dinamizazioaz eta jarraipenaz arduratuko dena eta Udalak, berriz, bere gain hartuko ditu Eusko Jaurlaritzaren "Euskaraz barra-barra" ikurraren kudeaketa zein ikurrarekin lotutako gainontzeko lanak eta hizkuntza-paisaia euskaratzeko lanak (itzulpenak eta zuzenketak, ereduak sortzea, dirulaguntzen kudeaketa...).

Egitasmoan jasotako bestelako lanak (Euskaraldia, sentsibilizazio-kanpainak...) elkarrekin bideratuko dituzte, eta eragindako gastuen banaketa bi aldeek artean adostuko da.

Merkatariek eta tabernariak euskaraz komunikatzeko duten gaitasuna hobetzeko antolatu daitezkeen ikastaroetarako, ulersaioetarako... Udal Euskaltegiarekin elkarlana bideratuko da

5. Aurrekontua

Jarduneko dinamizatzailerak 1,5 ordu eskainiko dizkio egunean egitasmoaren dinamizazioari eta jarraipenari, eta Udalak 8.000 euro emango dizkio Jarduni lan hori aurrera eraman dezan.

